



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko otsailaren 7a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetan ikasturte hasieran tokirik gabe gelditu diren ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, 2018-2019 ikasturterako hizkuntza-ereduz aldatzea eskatu duten ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Hezkuntza Bereziko zenbait ikastetxe publikotako igerilekuetako begiraleak ez kontratatzeko arrazoiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, SOS Nafarroak Kasedako tiroketan izandako jokabideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Ribaforadan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, 2017aren amaiera aldean Ilundain Fundazioarekin sinatutako adingabeentzako laguntza-kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Behaketa eta Harrera Zentroetan egun eskainitako lekuei eta deribatutako babes-espeditenteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, beren inbertsioak “foru erkidegoaren intereseko” inbertsioak direla deklaratzeko enpresek erregistratutako eskabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, ezgaitasun psikikoa duten pertsonentzako garraioideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, harrera-familiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Estatuan amatasun-prestazioak salbuetsita daudela deklaratzeko duen Auzitegi Gorenaren epaiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Esako urtegiaren eskuineko mazelaren egonkortasunaren eta segurtasun-ebaluzioaren gaineko azterlana kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Eneko Suescun Muza jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

- Galdera, Fernando Pagola jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Eduardo García jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Anne Sánchez andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, María José Oraa andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Patxiku Ganboa Zabalo jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Joseba Razkin Telleria jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Edurne Etxeberria Telletxea andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Marian Lecumberri Navascués andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Ana López-Araus Baines andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroetako aholkularien izendapenaren datari eta lanean eman duten denborari buruz Nafarroako Parlamentura igorritako informazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroetako aholkulari-lanpostuak direla-eta Nafarroako Parlamentura igorritako informazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroak direla-eta legegintzaldi honetan Nafarroako Parlamentura igorritako informazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Pilar Armendáriz Carro andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Eva Agos Esparza andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Ion Rey Bacaicoa jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetan ikasturte hasieran tokirik gabe gelditu diren ikasleei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetan ikasturte hasieran tokirik gabe gelditu diren ikasleei buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 28ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00191 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa

1. Nafarroako Hezkuntza Departamentu honek behar diren neurriekin ekin zien, Lanbide Heziketako irakaskuntzetako onarpen sistema moldatu eta EDUCA tresna informatikoarekin bideratzeko. Horregatik, gaurko egunean jakin ahal ditugu UPNko ordezkariak eskatzen dituen datuak. Datu horiek jakiteak ahalbidetuko du era egokiagoan doitzea datozen ikasturteetako Lanbide Heziketako eskaintza Nafarroako beharrezanetara: ikasleen eta familien eskaerara, lanbide sektoreen eskaerara, eta abar.

2. Apirilaren 29ko 54/2016 Foru Aginduan arautzen den bezala, Lanbide Heziketako irakaskuntzetan onartua izateko prozesua bukatzen da ikaspostu hutsak esleitzeko aldiarekin, hain zuzen ere orain bukatzen dena. Onartzeko prozesua bukatzen da ikaspostu hutsak esleitzeko prozesu batekin, zeina amaitzen baita onartutakoen bigarren zerrendaren matrikulazioaren ondotik. Zerrenda 2018ko urriaren 9an argitaratu da.

Beraz, bizirik dagoen prozesua da eta aldaketak izaten ditu, parte hartzaileen eta haien familien lehentasunen eta erabakien ondorioz.

Azaldu diren bi ohar horiek eginda, honako hau jakinarazi behar dugu:

– Erdi Mailako onarpena: oro har, DBHtik (onartzeko 1. Taldea) datozen ikasleak eta OLHtik (onartzeko 2. Taldea) datozenak; bi kasu horietan, gure erkidegoko ikastetxeetan eta aurreko ikasturteetan, alegia, 2017-18an, ia guztiek eskuratu dute ikaspostu bat Nafarroako lanbide heziketako ikastetxeetan. Antzeko datuak azpimarratzen ahal ditugu arauan ezartzen den onartzeko 3. taldeari dagokionez (sartzeko probaren bidez edo beste titulazio batzuekin iristen direnak).. Erdi mailako zikloetarako onarpen prozesuetan parte hartu duten 2.459 pertsonetatik ikasposturik eskuratu ez dutenak honakoak dira: 65 DBHko 4. mailatik etorritakoak, 2 OLHtik etorritakoak eta 7 sartzeko probatik edo beste titulazio batzuekin etorritakoak, 2017-18 ikasturtekoak, Nafarroako ikastetxeetan matrikulatutakoak.

Ikasposturik gabe gelditu dira erdi mailako 13 ziklotan: Mekanizazioa, Merkataritza jarduerak, Produktu grafiko interaktiborako laguntzailea, Mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzea, Sukaldaritza eta gastronomia, Landa ingurunean gorputz eta kirol ekintzak gidatzeko teknikaria, Erizaintzako zainketa lagungarriak, Ibilgailu automobilen elektromekanika, Osasun larrialdiak, Farmazia eta parafarmazia, Kudeaketa administratiboa, Aurreinprimaketa digitala eta Sistema mikroinformatikoak eta sareak.

Erdi mailako zikloetan ikasposturik gabe gerau dira 12 ikastetxeetan: Iruñeko María Ana Sanz Administrazioiko, Merkataritzako eta Informatikako Ila, Tuterako ETI IIPa, Iruñeko Arte Eskola, Iruñeko María Inmaculada LHIPa, Iruñeko Hezitzaile Eskola Ila, Burlatako LH Ila, Iruñeko Colegio Técnico Carlos III LHIPa, Nafarroako Osasuneko Lan-

bide Eskola Teknikoa-ESTNA Ila, Iruñekoa, Iruñeko Donapea IBPa, Iruñeko Virgen del Camino IIPa, Iruñeko Cuatrovientos II Pribatua, Iruñeko Politécnico Salesianos II Pribatua.

– Goi Mailako onarpena: oro har, Batxilergotik (onartzeko 1. Taldea) datozen ikasleak eta erdi mailako zikloetatik (onartzeko 2. Taldea) datozenak; bi kasu horietan, gure erkidegoko ikastetxeetan eta aurreko ikasturtean, alegia, 2017-18an, ia guztiek eskuratu dute ikaspostu bat Nafarroako lanbide heziketako ikastetxeetan. Anzoko datuak azpimarratzen ahal ditugu arauan ezartzen den onartzeko 3. taldeari dagokionez (sartzeko probaren bidez edo beste titulazio batzuekin iristen direnak).. Goi mailako zikloetarako onarpen prozesuetan parte hartu duten 3.041 pertsonetatik ikasposturik eskuratu ez dutenak honakoak dira: 64 Batxilergoko 2. mailatik etorritakoak, 63 erdi mailako zikloetatik etorritakoak eta 3 sartzeko probatik edo beste titulazio batzuekin etorritakoak, 2017-18 ikasturtekoak, Nafarroako ikastetxeetan matrikulatutakoak.

Ikasposturik gabe gelditu dira goi mailako 21 ziklotan: Egokitzapen fisikoa, Administrazioa eta finantzak, Anatomia patologikoa eta zitodiagnostikoa, Automatizazioa eta robotika industrialak, Automobilgintza, Plataforma anitzeko aplikazioen garapena, Sukaldeko zuzendaritza, Ekoizpen grafikoaren diseinua eta kudeaketa, Haur hezkuntza, Estetika integrala eta ongizatea, Abeltzaintza eta abere osasuneko laguntza, Basoa eta natur ingurunea kudeatzea, Ikus-entzunezko grafika, Aho-hortzetako higieena, Diagnostikorako eta medikuntza nuklearreko irudia, Gizarte integrazioa, Laborategi kliniko eta biomedikoa, Analisisien eta kalitate kontrolaren laborategia, Elektronikako mantentze-lanak, Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa, Hortz protesiak

Goi mailako zikloetan ikasposturik gabe geratu dira 14 ikastetxetan: Nafarroako Eskola Politeknikoa LHIPa, Iruñekoa, Iruñeko Agroforestal Ila, Iruñeko San Juan-Donibane Ila, Irunberriko LH IIPa, Iruñeko María Ana Sanz Administrazioako, Merkataritzako eta Informatikako Ila, Iruñeko Arte Eskola, Iruñeko María Inmaculada LHIPa, Iruñeko Hezitzaile Eskola Ila, Burlatako LH Ila, Iruñeko Colegio Técnico Carlos III LHIPa, Nafarroako Osasuneko Lanbide Eskola Teknikoa-ESTNA Ila, Iruñekoa, Iruñeko Donapea IBPa, Iruñeko Cuatrovientos II Pribatua, Iruñeko Politécnico Salesianos II Pribatua.

– Pertsona bakar bat ere lanbide heziketan ikasposturik gabe geratzea kezkarria da Hezkuntza Departamentuarentzat, eta honako

neurri hauek eratu dira: lehenbizi, egoera indibidualen azterketa eta, bigarrenik, informazio eta orientazio profesionala, bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikastetxeetako orientazio taldeen bidez. Halaber, Goi mailako zikloetan sartzeko ikastaroa eskaini da, erdi mailako ziklo bat bukatu dutenentzat; 120 ikaspostu ditu Iruñeko Donapea IBPan eta Tuterako Tuterako ETI IIPan banatuak.

Gainera, EDUCA aplikazio informatikoaren garapenari esker, bai eta lehen aipatu Lanbide Heziketako irakaskuntzetan onartua izateko prozesuan arauak aldatzeari esker ere, Nafarroako Foru Administrazioako Hezkuntza Departamentuaren historia osoan lehenbiziko aldiz, prozesu garden bat eta datu objektibo eta fidagarriak ditugu, zeinek ahalbidetzen duten azterketa egitea eta erabakiak hartzea, akatsak zuzendu eta konponbi-deak bilatze aldera.

2018-2019 ikasturte honetan lanbide heziketako irakaskuntzetan onartua izateko prozesuari dagokionez, azpimarratzekoa da ideia nagusi bat: gaur egun lanbide heziketako irakaskuntzetan ikasteko aukerarik ez dutenen kopurua nabarmen txikiagoa da aurreko gobernuen aldietan zegoena baino, ondotik datozen arrazoiengatik:

1. Lanbide Heziketako eskaintza nabarmen handitu da azken hiru ikasturteotan, aurreko gobernuak egin zuen azken eskaintzatik, 2015-16 ikasturteari begira. Erdi mailan 12 unitate gehiago izan dira eta goi mailan 15 unitate gehiago; guztira 27 dira. Horren ondorioz 600 pertsona gehiago sartu ahal izan dira LHko eta Arte Plastikoko eta Diseinuko zikloetan. Beraz, esan daiteke ikasposturik gabeko pertsona gutxiago dagoela heziketa zikloak handitu aurreko ikasturteetan baino, goi eta erdi mailako talde gehiago.

2. Erdi mailako zikloetatik etorri eta goi mailako ziklo bat egin nahi duten askok prestakuntza jarraitzen dute, hezkuntza sistemaren barruan, Goi mailako heziketa zikloetan sartzeko ikastaroen edo, bestela, Félix Urabayen Helduen Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Institutuak eskaintzen duen batxilergoan.

3. Orientazio pedagogikoan eta lanbidekoan azken bi ikasturteotan gertatu den hobekuntzak ahalbidetzen du, oro har, parte hartze hobea izatea gure hezkuntza sistemak eskaintzen dituen aukeretan eta, bereziki, pertsona gutxiago gertatzea lanbide heziketa ikasi ezinik, azken ikasturteetan hartutako neurri horiei esker.

Iruñean, 2018ko urriaren 26an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuoko ele-duna: María Solana Arana

Galdera, 2018-2019 ikasturterako hizkuntza-ereduz aldatzea eskatu duten ikasleei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2018-2019 ikasturterako hizkuntza-ereduz aldatzea eskatu duten ikasleei buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 28ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00192 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Erantsita doa eskatutako informazioa.

Iruñean, 2018ko urriaren 25ean.

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuako ele-duna: María Solana Arana

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

Galdera, Hezkuntza Bereziko zenbait ikastetxe publikotako igerilekuetako begiraleak ez kontratatzeako arrazoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Bereziko zenbait ikastetxe publikotako igerilekuetako begiraleak ez kontratatzeako arrazoari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 28ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00193 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako

Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Tuterako Torre Monreal eta Iruñeko Andrés Muñoz Garde ikastetxeetan igerilekuetarako monitoreak kontratatzeak eskatu du aurrez kasuko egiturazko lanpostuak sortzea, zeren eta halako lanposturik ez baitzegoen Administrazioaren plantilla organikoan. Lanpostu horien sorreran inguruabar askok eragiten dute, Hezkuntza Departamentua ez ezik, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia eta Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusia ere ukitzen dituztenak. Behin lanpostuak sortzeko behar diren txosten guztiak eskatu ondoren, haien sorrera Gobernu Bilkurara eraman zen, onets zezan: 2018ko urriaren 3an, asteazkenez, eman zitzaion onespena.

Iruñean, 2018ko urriaren 25ean.

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

Galdera, SOS Nafarroak Kasedako tiroketan izandako jokabideari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Sergio Sayas López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, SOS Nafarroak Kasedako tiroketan izandako jokabideari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 5eko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Sergio Sayas López jaunak idatzizko galdera egin du (9-

18/PES-00194). Hauxe da Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Babes Zibilerako Zerbitzuaren zuzendariaren txostena eransten duen Barneko zuzendari nagusiaren ofizioa bidaltzen dizut, biak ere 2018ko urriaren 29koak. Haietan, informazio-eskarian jasotakoari erantzuten zaie.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 29an Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: M^a José Beaumont Aristu

**Unión del Pueblo Navarro (UPN)
talde parlamentarioko kide Sergio Sayas López
jaunak aurkeztutako idatzizko galderari buruz-
ko txostena**

Nafarroako Parlamentuko UPN talde parlamentarioko kide Sergio Sayas López jaunak honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari: “Zein da SOS Nafarroak Kasedako tiroketaren berri emateko jaso zituen deien kronologia zehatza, zer urrats egin zuen SOS Nafarroak dei horiek jaso ostean, eta eman al zion abisua herriko Guardia Zibilari, ala ez?”

Erantzuna:

Eskatutako informazioari dagokionez, Barne Zuzendaritza Nagusiko Babes Zibilerako Zerbitzuak honako informazio hau ematen du:

Kasedan joan den irailaren 18an gertatutakoei dagokienez, Babes Zibilerako Zerbitzuan erregistratuta dauden aurrekarien artean, lehenengo dei bat ageri da, zeina 18:53an sartu baitzen SOS Nafarroa Larrialdien Kudeaketarako Zentroan. Datuak hartu ziren, eta operazioetarako kasuko protokoloan ezarritakoari jarraituz, deia zuzenean transferitu zitzaion Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroari. Gertakariaren kronologia eta hartatik eratorritako jarraibideak ondorengo xehetasunetan ageri dira:

- 18:53an, Foruzaingoak deia hartu zuen, Berehala polizia-baliabideak mugiarazi zituen, eta gertatutakoa Guardia Zibilaren Zerbitzuetarako Zentro Eragileari komunikatu zion.

- Aldi berean, SOS-Nafarroa Larrialdien Kudeaketarako Zentroan beste dei batzuk sartu ziren, gertakari beraren berri ematen zutenak.

- Jasotako informazioarekin, SOS-Nafarroa Larrialdien Kudeaketarako Zentroak honako osasun-baliabideak mugiarazi zituen:

- 18:56: Iruñeko Bizi-euskarri Aurreratuko ambulanzia bat.
- 18:56: Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko Zangozako Suhiltzaileen Parkeko Oinarrizko Bizi-euskarriko ambulanzia bat.
- 18:56 Zangozako ekipo medikoa.
- 18:56 Helikoptero medikalizatua.
- 18:58: Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko Trinitarioen Suhiltzaileen Parkeko Bizi-euskarri Aurreratuko ambulanzia bat.
- 19:01: Zangozako Bizi-euskarri Aurreratuko ambulanzia bat.

Foruzaingoko Aginte eta Koordinazio Zentroak herriko Guardia Zibilari abisua emateari ala ez emateari dagokionez, Guardia Zibilak berak adierazitakoari jarraituz, abisua beti Zerbitzuetarako Zentro Eragileari ematen zaio, eta haren koordinazio-zentroak beharrezkotzat jotzen dituzten baliabideak aktibatzen ditu.

Iruñean, 2018ko urriaren 29an

Herri Babeserako Zerbitzuko zuzendaria: Isabel Anaut Peña

Galdera, Ribaforadan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ribaforadan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri bat eraikitzeari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 5eko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioak 9-18/PES/-00195 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiko zuzendari nagusiaren abuztuaren 29ko 589/2018 Ebazpenaren bitartez, Hezkuntza Departamentuak honako hauei adjudikatu zien Ribaforadan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat eraikitzearen proiektua egitea eta haren zuzendaritza: Boa Arquitectos SLP, 96.695,01 euroko zenbatekoan, BEZa barne (% 72ko partaidetza) eta Ingeniería Eguzkia SL, B31737802 IFK duena, 37.603,62 euroko zenbatekoan, BEZa barne (% 28ko partaidetza), guztira 134.298,63 euroko zenbatekoan, % 21eko BEZa barne, eta proiektua idazteko 60 egun naturaleko epearekin; epe hori azaroaren 24an amaituko da, hura entregatzearekin.

Proiektua idazteko lizitazioan, Ribaforadako Udalak parte hartu du arkitektura-proposamen guztien balorazioetan, eta, horretarako, 2018ko

ekainaren 19an aurkeztutako eskaintza guztiak igorri ziren. Ribaforadako Udalak balorazioa egin ondoren, beste teknikari batzuen artean, Kontratazio Mahaiak adjudikazio-proposamena aurkeztu zuen eta lehen aipatutako kontratua egin zen.

Proiektua entregatu eta berehala, Hezkuntza Departamentuak obretarako eta jarduera sailkatuko udal lizentzia eskatuko ditu, eta ikastetxe berria eraikitzearen obren lizitazioa aterako du.

2018ko urte honetan hiru herrietako hezkuntza-komunitatearekin izandako hartu-emanei dagokienez, berriena joan den urriaren 22an izanda, hiru herrietako gurasoen elkarteekin, haur eta lehen hezkuntzako hiru ikastetxeetako zuzendaritzekin eta hiru udalen ordezkartzeekin batera egin dako bileran, Ribaforadako kultur etxean; hartan, hala ikastetxearen hezkuntza proiektua, nola eraikuntza-proiektuaren garapena azaldu ziren.

Ikastetxe berriaren zuzendaritzaz arduratuko den pertsona izendatu izanari buruz, berriz, esan behar dugu Hezkuntza Departamentua hautagaiekin hitz egiten ari dela, baina oraindik ere ez duela bat aukeratu. 9-17-PES-00222 galderaren erantzunean, adierazi genuen pertsona bat liberatuko genuela zentro horren zuzendaritza har zezan, baina halakorik ez da gertatu oraindik.

Behin ikastetxea zabaldua abian jarriko diren irakaskuntza-mailei dagokienez, aurreikusi da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak eskaintzea, oro har derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxe berriak ireki ditugunean egin dugun bezala.

Iruñean, 2018ko urriaren 31n

Hezkuntzako kontseilaria: María Solana Arana

Galdera, 2017aren amaiera aldean Ilundain Fundazioarekin sinatutako adingabeentzako laguntza-kontratuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2017aren amaiera aldean Ilundain Fundazioarekin sinatutako adingabeentzako laguntza-kontratuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 5eko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera egin du 2017aren amaiera aldean Ilundain Fundazioarekin sinatutako adingabeentzako laguntza-kontratuari buruz (9-18/PES-00196). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak informatzeko duena:

Amaiera aldean Ilundain Fundazioarekin 2017aren amaieran sinatutako adingabeentzako laguntza-kontratua.

Ilundain Fundazioarekin izenpetutako kontratua jasotzen duen artxibo bat erantsi dugu.

Zenbat igo da baliabide bakoitzerako lekuaren prezioa aurreko kontratuarekin alderatuta?

Oinarrizko egoitza-harrerako postuen guztizko moduluaren prezioa, 2017ko kontratua formalizatu aurrekoa, 59.368,82 eurokoa zen (53.431,93 euroko modulu finkoa+5.936,89 euroko modulu aldakorra).

2017ko modulu sinatu ondoren, oinarrizko egoitza-harrerako postuengatik guztizko modulu 68.542,34 eurokoa zen (58.309,15 euroko

modulu finkoa+10.289,85 euroko modulu aldakorra).

2017an kontratu berria sinatu ondoren, egoitza-harrera bereziko guztizko moduluak 9.173,52 euroko igoera izan du postu bakoitzeko.

Fundazioak kudeatzen dituen gainerako programei dagokienez: 1) Behaketa eta Harrera Zentroa gaur egun aberaste bidegabearen egoeran dago, lizitazio prozesua eman gabe geratu baita; eta 2) egoitza-harrera espezializatuko 8 postuak eta bizitza autonomorako prestatzeko 10 postuak berriak dira; hori dela eta, ezin dira haiek alderatu aurreko egoerekin.

Kontratu berri horretan kontuan hartzen al da urteko KPlaren araberrako prezio-igoerarik? Ala azkeneko prezio bat da, kontratuan itxia, kontratuaren eperako ezarritako iraunaldian aldatzen ez dena?

Ilundain Fundazioarekin sinatutako kontratua aurreko legeren babesean (Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea) gauzatzen ari da; hark aukera ematen zuen (aurreko kontratuetan gertatu den bezala) prezioak kontratuaren indarraldian zehar ez eguneratzeko klausulak ezartzeko. Prezioak ez eguneratzeari buruzko klausula hori 2012an sartu zuen (krisi ekonomikoko testuinguru batean) aurreko Gobernuak. Hori dela eta, kontratu horrek ez du jasotzen bera indarrean den bitartean prezioen berrikuspena egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 25ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

Galdera, Behaketa eta Harrera Zentroetan egun eskainitako lekuei eta deribatutako babes-espeditenteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Behaketa eta Harrera Zentroetan egun eskainitako lekuei eta deribatutako babes-espeditenteei buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 5eko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera egin du Behaketa eta Harrera Zentroetan egun eskainitako lekuei eta deribatutako babes-espeditenteei buruz (9-18/PES-00197). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako Departamentuak informatzeko duena:

Harrera Zentroetan egun eskainitako lekuak. Zehatz bitez kasuko lekua kudeatzen duen entitatea eta kokapena

- Gatazka egoeran dauden adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroa: 15 postu, Ilundain Haritz Berri Fundazioak kudeatuak. Zolinan eta Ilundainen (Aranguren Ibarra) daude egoitzak.

- Zailtasun egoeran dauden adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroa: 12 postu, Xilema Fundazioak kudeatuak. Iruñeko Arcadio María Larraona kaleko 1. zenbakian dago.

Behaketa eta Harrera Zentroetara deribatutako babes-espeditenteei: Kudeatzen dituen entitatea, adingabe espainiarren edo nazionalizatuen kopurua, bakoitzaren egonaldiaren iraupena, kasu bakoitza zein baliabidetara deribatu den.

Gatazka egoeran dauden adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroa:

- Ilundain Fundazioak kudeatua.
- 145 espeditente daude irekita

- % 48 bertan jaiok dira / % 52 atzerrian jaiok

- Batez besteko egonaldia: 45 egun.

- Zein baliabidetara deribatu diren: 29 bueltan joan dira beren familia-etxera; 64 Ilundain Fundazioaren egoitza-harrerako baliabideetara; 52 Navarra Sin Fronteras Elkartearen baliabideetara.

Zailtasun egoeran dauden adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroa:

- Xilema Fundazioak kudeatua.

- 90 espeditente daude irekita

- % 60 bertan jaiok dira / % 40 atzerrian jaiok

- Batez besteko egonaldia: 90 egun.

- Zein baliabidetara deribatu diren: 39 egoitza-harrerako prozesuetara; 5 adopzio prozesuetara, eta 46 Xilema Fundazioak eta Navarra Nuevo Futuro Elkarteak kudeatzen dituzten babeserako etxebizitza funtzionaltara.

Behaketa eta Harrera Zentroetara deribatutako atzerriar adingabe bidaidegabeen babeserako espeditenteei. Entitate kudeatzailea. Haietako bakoitzak Behaketa eta Harrera Zentroetan emandako denbora eta kasu bakoitza zein baliabidetara deribatu den.

2017an zehar, bakarrik dauden adingabe atzerriarrak direla-eta 21 babes-espeditente ireki dira. Gatazka egoeran dauden adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroan egon ondoren, 9 Navarra Sin Fronteras Elkartera deribatu ziren eta 12, berriz, Ilundain Fundaziora. 17 kasutan, deribazioaren xedeko baliabidea bizitza autonomorako prestatzeko programa izan da; gainerako lau kasuak oinarrizko egoitza-harrerako programetara deribatu dira. Batez-besteko egonaldia 10 hilabetea da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 25ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, beren inbertsioak “foru erkidegoaren intereseko” inbertsioak direla deklaratzeko enpresek erregistratutako eskabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, beren inbertsioak “foru erkidegoaren intereseko” inbertsioak direla deklaratzeko enpresek erregistratutako eskabideei buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 5eko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak 9-18/PES-00198 parlamentu-galdera egin du. Hauxe da Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatzeko duena:

Garapen Ekonomikorako Departamentuak daukan informazioaren arabera, 2010etik Foru Komunitatearen intereseko deklarazioa lortzeko aurkeztu diren eskaerak, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren babesean onetsi direnak, honako hauek dira:

Enpresa	Proiektua	Data Erabakia	NAOn noiz argitaratua
Harivenasa SL	Nafarroan olo-malutak ekoizteko industria bat ezartzea	2012/05/09	2012/05/28
Alinter Alimentación SAU	Nafarroan elikagai likidoak ekoizteko industria bat ezartzea	2012/05/23	2012/06/11
Uhalrod SL	Nafarroan aluminiozko alanbre-gaia ekoizteko industria bat ezartzea	2012/08/29	2012/09/07
Automoción Sostenible, T+C SL	Nafarroan abiadura-kaxa automatikoak berrekoizteko industria bat ezartzea	2012/11/07	2012/11/19
UVESA	Nafarroan oilasko-inkubaleku bat ezartzea	2012/12/28	2013/01/11
Hermanos Cirauqui Días SL	Barazki pasteurizatuak ekoizteko proiektua	2013/06/26	2013/07/05
Sarriopapel y Celulosa SA	Paper termiko eta metalizatuen sorta eta paper horiek egiteko ahalmena handitzeko inbertsio-proiektua (deklarazioa 2014-09-09koa da; epea luzatu da).	2014/12/29	2015/01/13
Envaplastar SA	Elikagaietarako erretilu plastikoak egiteko inbertsio-proiektua	2015/06/03	2015/06/19
Palacio Arozteguía SL	Lekarotzerako turismo, ostatu, kirol eta etxebizitzetarako proiektua	2015/06/03	2015/06/19
Traperos de Emaús Fundazioa	Berriozarren “Hondakinak Berrerabilerarako Prestatzeko Zentroa” egiteko inbertsio-proiektua (deklarazioa 2013koa da; epea luzatu da).	2015/06/03	2015/06/19
Davalor Salud SL	Begiko —ez organoko, baizik eta ikusmeneko— funtzionaltasun-arazoetara bideratutako azterketarako, diagnostikorako eta terapiarako produktuen hardwarearen eta softwarearen merkataritza-ustiapenerako eta -garapenerako enpresa-proiektua.	2015/09/09	2015/09/18
Sofidel Spain SLU	Buñuelgo “Paper 2 eta converting makina berri bat” inbertsio-proiektua	2016/12/21	2017/01/27
Torraspapel SA	Leitzan, “Paper termiko eta metalizatuen sorta eta paper horiek egiteko ahalmena handitzea” inbertsio-proiektua	2017/07/26	2017/08/08

<i>Enpresa</i>	<i>Proiektua</i>	<i>Data Erabakia</i>	<i>NAOn noiz argitaratua</i>
Lekunberri de Corte SL	Lekunberrin, "Sorgailu eolikoetarako ardatzak egitea" izeneko enpresa-proiektua	2017/07/26	2017/08/08
Volkswagen Navarra SA	VW216 modeloa egiteko inbertsio-proiektua	2017/09/13	2017/09/28
Cárnicas Galar SL	La Nava industrialdean haragi-industria handitzeko inbertsio-proiektua	2017/10/11	2017/10/23
Viscofan SA	Kasedako faktoriako instalazioak handitzeko inbertsio-proiektua	2017/11/22	2017/11/29
Paneles Decorativos Panel Piedra SL	Tuteran ezartzeko inbertsio-proiektua	2018/02/14	2018/03/01
MAPSA	2018-2020 urteetarako inbertsio-plana MAPSA SCLk sustatua, Orkoiengo instalazioak handitzeko	2018/02/14	2018/03/01
Sunsundegui SA	Altsasuko instalazioak birmoldatzeko inbertsio-proiektua	2018/03/07	2018/03/23
Oleofat Tradet SL	Oleofat Trader SLk sustatutako inbertsio-plana, Tuterako instalazioak handitzeko	2018/03/07	2018/03/23
Ultracongelados Virto	2018-2019 urteetarako inbertsio-plana	2018/04/18	2018/05/04
Natur-All BBVV-2018 SLU	Natur-All proiektua izenekoaren inbertsio-proiektua	2018/06/20	2018/07/12
Trans Jaylo SA	Tuterako instalazioak handitzeko inbertsioa	2018/06/20	2018/07/12
Vegetales Línea Verde Navarra SA	Tuterako instalazioak handitzea	2018/06/20	2018/07/12
Exposición y Conservación de Alimentos SA	Martzillako fabrika	2018/09/19	2018/10/05
Focke Meler Gluing Solutions	Orkoiengo instalazioak handitzea	2018/09/26	2018/10/15
Gelagri Ibérica SL	Milagroko instalazioak handitzea	2018/10/03	2018/10/22
Suno Energía 4 SL eta Suno Energía 5 SL	Tuteran bi planta fotovoltaiko instalatzea	2018/10/24	

Honako enpresa hauek aurkeztutako eskaerak ez dira onetsi:

<i>Enpresa</i>	<i>Eskabidea</i>
SÍLICE NAVARRA SL	2015/02/03
MEPEF CASCANTE SL	2017/09/02

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 29an.

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, ezgaitasun psikikoa duten pertsonentzako garraibideari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ezgaitasun psikikoa duten pertsonentzako garraibideari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 15eko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (9-18/PES-00200) Desgaitasun psikikoa duten pertsonak desgaitasun-zentroetara joateko garraioari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak garraio hori diruz laguntzen al du? Baiezkoan, azaldu zehaztasunez laguntza zertan datzan eta nola eskatu behar den.

Garraio egokitu eta lagunduaren zerbitzuari dagokionez, prestazio bermatu bat da desgaitasuna dutenentzako eguneko zentro batera joaten diren guztientzat, Nafarroako Gobernuak finantzatzen duena. Gizarte zerbitzuen zorroan, prestazio ez-bermatutzat jotzen da lanerako zentro batera joaten direnen kasuan.

Eguneko laguntzaren erabiltzailearen bizilekua joaten den zentroari dagokion gizarte zerbitzuen barrutitik kanpo dagoenean, garraioa zentroak kudeatzen dituzten entitateek egiten dute, zentroen kudeaketarako adjudikatutako kontratuetako baldintza teknikoaren pleguek eskatzen duten moduan.

Baldin eta erabiltzailearen helbidea joaten den zentroari dagokion gizarte zerbitzuen barrutitik kanpo badago, garraio egokituaren zerbitzua gaur egun Gurutze Gorriak kudeatzen duen garraio egokiturako kudeaketa-kontratuaren bidez ematen da.

Batzuetan, gerta daiteke kontratu horrek erantzunik ez ematea erabiltzailearen garraio-beharri; bada, halakoetan, erabiltzaileak zerbitzuari lotutako prestazio bat eska dezake hartatik heldutako

gastuak ordaintzeko, Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak arautzen dituen ekainaren 1eko 210/2009 Foru Aginduak jaso bezala.

Arau horren arabera, bidaiarien garraio publiko erregularra baliatzen ahal duten erabiltzaileentzat, lotutako gehieneko prestazioa kalkulatzeko, hau egingen da: bidaiarien garraio erregularreko txartelaren prezioa bider eguneko arreta zerbitzura benetan joandako egun kopurua. Bidaiarien garraio publiko erregularra baliatu ezin duten erabiltzaileek, berriz, prestazio ekonomiko bat jasoko dute, zeinaren gehieneko kopurua kalkulatzeko eragiketa hau ezarri baita: 0,20 euro bider distantzia —hau da, eguneko arreta zerbitzutik erabiltzailearen etxeraino dagoen kilometro kopurua— eta bider benetan joandako egun kopurua. Modalitate hori eskuratu ahal izateko, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren dagokion atalaren aldeko txostena eskatuko da.

Prestazioaren zenbatekoa kalkulatu da kasuan kasuko baliabidera egiazki joaten den egunen arabera; hori dela eta, ekitaldiaren amaieran dagokion erregularizazioa egingen da, erabiltzailea bertaratu ez den egunak deskontatuz. Eta egun bakoitzean zerbitzura joateko bidaia bat eta etxera itzultzeko bidaia bat kontatuko da soilik.

Garraio-zerbitzu egokitu eta lagundurako eskaera, dela zerbitzu gisa, dela zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko gisa, gainerako zerbitzu eta prestazioekin gertatzen den bezala, erabiltzaile bakoitzari, bere banakako-arreta programaren arabera, dagokion oinarrizko gizarte zerbitzuaren bitartez egingen da.

Erkidegoz aldatzea baldin badakar ere diruz laguntzen al da? Adibidez, Carcarreko desgaitu bat Calahorrara joaten baldin bada. Kasu horretan, erkidego mugakideekiko hitzarmenen bat dago. Iraganean ere egon al da?

Erabiltzailea beste autonomia erkidego bateko eguneko arretako baliabide batera joaten baldin bada, espediente zentroa dagoen autonomia erkidegora aldatuko da, eta bera izanen da hura arautzen duen araudiaren arabera zerbitzua emateko eskuduna izanen dena.

Nafarroako Foru Komunitateak hainbat aldiz proposatu izan du Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Batzorde Delegatuan, erkidego mugakideen arteko harremana erregula

dadila, erabiltzaileak beste erkidego batzuetako zerbitzuez baliatu ahal daitezen, baldin eta, hurbilago egoteagatik, haietara iristea errazagoa bada, espedientea aldatzeko eskatu behar izan gabe, horrek errola-aldaketa bat dakarrelako berekin. Une hauetan, estatu osoan oraindik ere ebatzi gabe dagoen kontu bat da.

Hori dela eta, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia harremanetan jarri da autonomia erkidego mugakide batzuekin,

elkarren arteko hitzarmenak proposatzeko Estatu-ko erregulazioa egiten ez den bitartean.

Eskura dauzkagun datuekin, ez dugu jasota inongo hitzarmenik dagoenik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko azaroaren 6an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, harrera-familiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, harrera-familiei buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 19ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera bat egin du harrerako familiei buruz (9-18/PES-00201). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Zenbat familia berrik eskatu du harrerarako, urgentziazko harrerarako eta harrera espezializatuetarako egokitasuna?

Familia Harrerako programari buruzko informazioa eskatu duten familien kopuruari buruz, esan behar dugu 2018an 53 informazio-eskaera erregistratu eta erantzun direla. Familia horietako hamalauk beren egokitasuna baloratzeko eskaera aurkeztu dute.

Zenbat familia igaro dira harrera-egokitasunetik beste egokitasun mota batera? Adibidez, aldi baterako harreratik edo harrera iraunkorretik espezializatura edo urgentziazkora?

Familiak, printzipioz, bai aldi baterako harrera, bai harrera iraunkorra egiteko prest egoten dira; ez da jarrera itxirik izaten. Nolanahi ere, familia hartzailearen eta teknikarien artean tratatu ohi den gaia izaten da, harrerarako gai diren adingabeen arabera. Familia hartzaile "aldi baterakoekin edo iraunkorrek" ere, urgentziako harrera batzuk eratu izan dira, nahiz eta programa horretan modu jarraituan parte hartu ez.

Zenbat familia berrik eskatu du adopzioarako egokitasuna?

2018ko urtarriletik gaur arte, 31 familiak eskatu dute adopzioarako egokitasuna: 17 nazionalerako eta 14 nazioartekorako.

Adopzioarako egokitasuna zeukaten zenbat familia atera dira, gurasoen adina dela medio, zerrendatik? Adopzio guraso izateko adin-mugaren xehetasuna, eta ea ezberdina den adopzioa naziokoa ala nazioartekoa izan.

Ba al dago familiaburuaren adin-mugarik harretan egokitasuna eskatzeko edo berritzeko?

2018an zehar, 2 urtetik beherako adingabeen adopzioarako zerrendatik, baimena tartean dela, honako hauek atera dira: 5 familia, nahiz eta oraindik ere ezaugarri berezien zerrendan jarraitzen duten. Adoptatzeko eta harrerarako adinaren muga bera da nazioko eta nazioarteko adopzioan zein harreran.

Nazioarteko adopzioa jotzen duten familiek, Espainiako araudiak ezartzen duen adoptatuaren eta adoptatzailearen arteko (edo, kasua bada, harrerarako) 45 urteko gehieneko aldeaz gainera,

adingabearen jatorriko herrialdeak ezartzen duen adin-aldea bete beharko dute.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko azaroaren 12an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Estatuan amatasun-prestazioak salbuetsita daudela deklaratzeko duen Auzitegi Gorenaren epaiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Jokin Castiella Imaz jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Estatuan amatasun-prestazioak salbuetsita daudela deklaratzeko duen Auzitegi Gorenaren epaiari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 19ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jokin Castiella Imaz jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du –3835 sarreraz bakiarekin erregistratu zen, 2018ko urriaren 9an, 9-18/PES00202– Estatuan amatasun-prestazioak salbuetsitzat deklaratzeko dituen Auzitegi Gorenaren epai berria aplikatzeak Nafarroako Foru Komunitatean izanen lukeen inpaktu ekonomikoari buruz. Honako hau da Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion erantzuna:

Lehenena.- Oso zaila da analogia aplikatzea neurriak Nafarroan izanen duen kostua kalkulatzeko, honako arrazoi hauengatik:

a) Epaiaren estatuan zehazki nola aplikatuko den ezagutzeko gaur egun dagoen zailtasuna.

b) Ez dago argi aitatasuneko prestazioak salbuetsita egon behar den. Kontsulta bat egin zaio Tributuen Zuzendaritza Nagusiarri; hartan eska-

tzen zaio zehatz dezan ea itzulketak eraginik izanen duen aitatasuneko prestazioetan.

c) Ez dago argi itzulketak berandutza-interesak barne biltzen dituen. Uste dugu Nafarroan ez liratekeela aplikatzeak izan behar, zeren eta itzulketa lege berri batetik heldu bada, atzera-eraginaren efektuek ez lituzkete berandutza-interesak bilduko.

d) Askotan jasandako atxikipenen itzulketari buruz hitz egiten da. Uste dugu gauzak horrela ikusteak kontzeptu-akats larri bat dela. Are gehiago Nafarroan, non atxikipenaren kalkulua ez dagoen ordaintzeko edo itzultzeko den amaierako kuotari hain doitu. Bidezkoa dena da ukitutako PFE-Zaren aitortzearen bakoitzean beste likidazio bat egitea, salbuetsita geratuko den prestazioa kenduz.

e) Estatuaren kasuan, 2014, 2015, 2016 eta 2017. urteetako itzulketaz gainera, amatasuneko prestazioak salbuetsita egon behar da baita etorkizuneko ere, eta, horrenbestez, estatuko itzulketaren kostuen kalkuluetan ez da 2018. urtea sartzen. Nafarroan, ordea, ez da hori gertatzen, zeren eta 2019tik aurrera salbuespenik edo kenkaririk ez egotea aurreikusten duen egungo agertokiarekin, 2018. urteak ere inpaktu ekonomiko bat ekarriko baitio Nafarroari egungo egoerarekin alderatuta, eta, bestetik, azken urte hori amaitu ez denez, zailagoa da kalkulua egitea.

Bigarrena.- Hala eta guztiz ere, aipatutako zalantza guztiekin ere, 2019rako onetsi den kenkariaren kostua kalkulatzeko egin zen azterlana aprobetxatuz, datu batzuk berrerabili ziren "amatasuneko salbuespenaren urteko" kostuen hurbilketa bat egiteko. Diru-bilketan duen inpaktua

urtean 7.799.883 eurokoa da, 100eko 24,33ko batez besteko tasa marjinala kalkulatu, amatasuneko prestazioagatiko pertzepzioen guztizko kalkulua baten gainean, eta, horrenbestez, 39-40 milioikoa da ukitutako bost ekitaldiak kontuan hartuta. Zenbateko horri aitatasuneko prestazioaren

kostua gehituz gero, bost urteetarako guztizko kopurua 45 milioi ingurukoa izatera irits daiteke.

Iruñean, 2018ko azaroaren 14an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, Esako urtegiaren eskuineko mazelaren egonkortasunaren eta segurtasun-ebaluazioaren gaineko azterlana kontratatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Esako urtegiaren eskuineko mazelaren egonkortasunaren eta segurtasun-ebaluazioaren gaineko azterlana kontratatzeari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu du (9-18-/PES-00204). Galderan honako hau aipatzen du: "Jakín dugunez, Esako urtegiaren eskuin-mazelaren egonkortasunari eta segurtasun-ebaluazioari buruzko azterlan bat egin dadin agindu da. Idatzizko hedabideen arabera, azterlana Geoconsult España, Ingenieros Consultores SA enpresak egingen du, 222.337,51 euroan (BEZa barne)". Hauxe da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak egindako galderetako bakoitzari ematen dion erantzuna:

.- Estatuko Administrazio Orokorraren eskumenekoa den herri lan baten segurtasuna ikuskatzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak izan lezakeen balizko edo ustezko eskumenaren justifikazioa, eta zein lege-xedapenetan ezarrita dagoen hori.

Erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren 2015eko abenduaren 23ko Erabakiak, Esako urtegia handitzeko obren

segurtasun-alderdi batzuei zegokienez, aipatzen zuen Esako urtegia handitzeko obrak, bidean direnak, Estatuko Administrazio Orokorraren eskumena direla, baina, hala eta guztiz ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak babes zibilaren arloko eskumenak badituela, eta, horrenbestez, betebeharrak ere bai (honako legeriaren babesean: bereziki, Babes zibilari buruzko urtarriaren 21eko 2/1985 Legea; Babes zibilaren Batzorde Nazionalaren osaketa eta funtzionamenduraubidea arautzen duen irailaren 20ko 967/2002 Errege Dekretua; Babes zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea, eta Nafarroako Babes Zibileko Lurralde Plana onetsi zuen ekainaren 3ko 230/1996 Foru Dekretua).

Erabakiaren puntuetako batek ezartzen zuen departamentuen arteko lantalde tekniko bat osatuko zela, honako departamentu hauetako langileek osatua: Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia Departamentua; Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko Departamentua, eta Garapen Ekonomikorako Departamentua. Lantalde horren xedea da Erabakiaren lehen apartatik hirugarren apartatura bitartean aipatutakoak betetzea, eta, horretaz gainera, Gobernuari proposatzea bidezko diren erabakiak har ditzan.

Lantalde tekniko horrek 2016ko ekainaren 21ean "Esako presa handitzeko obren segurtasun-alderdiak ebaluatzeako txosten teknikoa" egin zuen.

Geroztik, Nafarroako Gobernuaren 2017ko irailaren 6ko Erabakiak –Esako presa handitzeko obren segurtasun alderdi batzuei eta irizpen baten beharri buruzkoak– departamentuen arteko lantalde teknikoari eskatu zion kostua ebaluatzeako eta behar ziren kudeaketak egin zitzaizkien irizpen bat ekarriko zuen azterlan bat egiteko. Horretan, parte

hartu beharko zuten nazioartean obra hidrauliko handiekin lotutako arrisku geologikoen arloan izen aitortua zuten aditu independenteen talde batek edo talde batzuek.

- Ekimen horren tenore-ontasunaren justifikazioa; izan ere, orain dela hilabete, Trantsizio Ekologikoaren Ministerioak berak berri eman zuen Esaren segurtasunari buruzko azterlan berri bat Bide Ingeniarien Elkargoari agintzeaz, gai horri buruz Ebroko Konfederazio Hidrografikoak jada badauzkan azterlan ugari gehituko zaiena.

Erantzuna:

Uraren Zuzendaritza Nagusiaren 2018ko ekainaren 29ko Ebazpenaren bidez, argitara eman zen Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoari kudeaketa-esleipena egiteko hitzarmena, Esako (Nafarroa) presari buruzko irizpen bat egin zezan.

Aipatutako hitzarmenean, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak aipatutako elkargoari enkargatuz irizpen bat egin zezala Esako urtegia handitzeko obren segurtasuna dela-eta eman diren txostenei buruz, kontuan hartuta bai Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindakoak, bai Nafarroako Gobernuak enkargatutakoak ere.

Enkarguaren xede den amaierako irizpena idazteko, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak honako jarduketa hauek egin ditu:

1.a) Esako urtegia handitzeko obren segurtasuna dela-eta dagoen informazioa aztertu eta analizatzea.

2.a) Proiektua idazteko Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindako edo enkargatutako lanen txostenei buruzko hasierako irizpena.

3.a) Nafarroako Gobernuak departamentuen arteko batzordeak 2016ko ekainaren 21eko txostenari eta hark oinarri dituen txostenei buruzko hasierako irizpena; eta Batzordearen eta boto partikularraren konklusioen azterketa konparatiboa. Irizpena egiteko, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak, halaber, gorte autonomikoetan azaldutako txosten teknikoak eta egindako adierazpenak baloratuko ditu, eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari enkargatutako obren egokitzat jotzen diren aurrekariak berrikusiko dira.

4.a) Nafarroako Gobernuaren 2017ko irailaren 6ko Erabakian oinarrituta eman daitezkeen txostenei buruzko hasierako irizpena, Esako urtegia handitzeko obren segurtasunaren arloko zenbait alderdiri eta irizpenaren beharrari buruzkoa.

5.a) Esako urtegioko presa handitzeko obren segurtasunari buruzko amaierako irizpena, Esako

presaren eta eskuin estriboko mazelaren egonkortasunari buruzko analisietan eta aurrez dauden azterlanen eta egindako eta aurreikusitako egonkortze-neurrien ebaluazioan oinarritua.

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak honako betebeharrak hartzeko bere gain:

1. Hitzarmena betetzea dela-eta Uraren Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioa analizatzea.

2. Aurrez jaso diren hasierako irizpenak eta amaierako irizpena pixkanaka egitea.

Horrenbestez, aipatu ditugun hitzarmeneko testuei dagokienez, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak ez du azterlan berririk enkargatu; egin duen gauza bakarra izan da Bide Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoari eskatzea lehendik dauden azterlanei buruzko irizpenak eman ditzala, horren barne dela, modu prebentiboan, Nafarroako Gobernuak idatziko duena. Hori del eta, Nafarroako Gobernuaren azterlanaren kontratazioak beharrezkoa izaten jarraitzen du mazelaren egungo segurtasun-koefiziente eta gero etorkizuneko balizko egonkortze-obrena ezartzeko, baita ohiz kanpoko gertakarien aurrean ere.

- Justifikazioa, zer dela-eta uste duen Nafarroako Gobernuak egokia dela eta justifikatuta dagoela 222.337,51 € gastatzea azterlan berri batean; izan ere, Diputatuen Kongresuak irailaren 11n Unidos Podemosen mozio bat baztertu zuen, zein角度an auzitan jartzen baitzen Esako urtegia handitzeko proiektuaren segurtasuna eta obrak bukatu aitzin azterlan berriak egitearen aldeko apustua egiten baitzuen.

Erantzuna:

“Preguntas y respuestas habituales sobre Yesa” (CHE, 2013) dokumentuan, honako galdera hau zegoen: “9. Egonkortze-lanak amaitzen direnean, mazela segurua izanen al da?”. Eta aipatutako dokumentu publikoaren erantzuna honako hau zen: “Behin lan guztiak amaituta, mazelak araudi indardunak ezartzen duen segurtasuna izanen du, eta segurua izanen da oso probabilitate gutxiko ohiz kanpoko gertakarien aurrean, nola baitira sismoak eta eurite handiak”.

2016an, departamentuen arteko lantalde tekniko batek galdera batzuk idatzi zituen Ebroko Konfederazio Hidrografikoarentzat. Nafarroako Gobernuak Uraren Zuzendaritza Nagusiari igorri zizkion 2016ko martxoaren 18an. Zehazki, honako hauek dira zuzenago “araudi indardunak ezartzen duen segurtasunaren” egoerari buruz eta emergentziako lanen eta etorkizuneko lanen ondoren

mazelak izanen duen segurtasun-koefizienteari buruz egin ziren galderak:

“2.a Aztertzea zer eragin izan duten Esako presaren eskuin mazelan egin diren egonkortze-obrek, egungo egonkortze-parametroen balioak adieraziz.

3.a 2015eko azaroko txostenean jasotako egonkortze-neurri berrien proiektua, halakorik badago, edo bestela informazio xehea, iragazgaizteko pantailari eta irristadura-planoaren drainatze-galeriei dagokienez”.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak honako hau erantzun zuen 2016ko martxoaren 30ean:

“2. Esako presaren eskuin mazelan egin diren egonkortze-obrek, egungo egonkortze-parametroak adierazita, izan duten eraginaren azterketa.

Edozein mazelaren egonkortasuna kalkulatzeko parametroak zailak dira zehazten, zeren eta, laburbilduz, kontua baita terreno-masa handi baten baterako jokabidea islatzea, eta terreno-masa hori heterogeneoa izateaz gainera, bertako estratigrafiak, inklinazioak, hausturak, iragazkortasunak eta abarrek eginkizun erabakigarria dute. Hori dela eta, parametro horiek zuzen interpretatzeko, arretaz irakurri behar dira egindako kalkularen egileak aintzat hartu dituenak. Aurrez d), e) eta f) letrekin seinalatutako dokumentuetan zehaztasun handiz aipatzen dira Esako presaren eskuin mazelaren egonkortasuna kalkulatzeko parametro guztiak.

3. Iragazgaizteko pantailari eta drainatze-galeriari eta haien egonkortasun parametroei buruzko egonkortze-neurrien informazio xehearen proiektua.

Informatu beharra daukagu gaur egun “Esako urtegiko (Nafarroa) eskuin mazelan hobekuntzak egiteko jarduketaren proiektua” izenburua daraman proiektua idazten ari dela. Proiektua 2016an zehar amaituko da, eta behin amaitu ondoren informazioa emanen da, aginduzkoa den bezala”.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ez zionez erantzun “araudi indardunak ezartzen duen segurtasuna”ri buruzko galdera zuzenari, eta horren ordez emergentzia obren aurrekoak diren hiru azterlan aipatu zituen, zeinak elkarrekin kontraesan baitaude zenbait alderditan eta zeinek ez baitute kalkulatu egungo mazelaren segurtasun-koefizientea –are gehiago, horietako batek, e) letra daramanak, segurtasunaren edo segurtasun-koefizientearen kontzeptua aipatu ere ez du egiten dokumentu guztian–, eta ikusita “Esako urtegiko (Nafarroa) eskuin mazelan hobekuntzak egiteko jarduketaren proiektua”, 2016an idazten ari zena eta urte horren amaieran Nafarroako Gobernuari igorriko zitzaiona, 2018ko azaroan oraindik ere ez dela ez azaldu ez idatzi, eta ikusita, gainera, segurtasunari buruz Ebroko Konfederazio Hidrografikoak uretan behera dauden herrietan eta oro har gizartean sortu duen alarma, Nafarroako Gobernuak segurtasun-arloko alderdiak –horiek baino ez– argitzeko beharra dauka.

Aurrekoa ikusita, aipatutako mozioa atzera bota izanak ez du esan nahi segurtasuna bermatuta dagoenik. Aurreko puntuetan jada aipatu dugun bezala, oraindik ere zalantza garrantzitsuak daude mazelaren segurtasuna dela eta, eta emergentziako jarduketak egin ondorengo egoera, egungo egoera ez da argi gelditu, ez eta obra osagarri berriak egin behar diren ere, hain zuzen ere Ebroko Konfederazio Hidrografikoak jasas egonkortzat eta segurutzat jotzen duen mazela batean. Hori dela eta, justifikatuta dago eta egokia da azterlana egin dadila, Nafarroako Gobernuak babes zibilaren arloan dauzkan eskumenez baliatuta, eskumen horiek betebeharrak ere badakartzatelako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Eneko Suescun Muza jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eneko Suescun Muza jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00205 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– Aholkularitza-eginkizunak 2017/18 ikasturte-tik betetzen ditu, baina lanpostua geroztik sortu zen plantilla organikoan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duen abuztuaren 22ko 67/2018 Foru Dekretuaren bitartez.

– Legegintzaldi honetan, Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak egin dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean.

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuako elduna: María Solana Arana

Galdera, Fernando Pagola jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Fernando Pagola jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00206 ida-

tzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– 2015-09-01etik.

– Legegintzaldi honetan, Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak egin dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean.

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuako elduna: María Solana Arana

Galdera, Eduardo García jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eduardo García jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak 9-18/PES-00207 ida-

tzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– 2015-09-01etik.

– Legegintzaldi honetan, Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak egin dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean.

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

Galdera, Anne Sánchez andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Anne Sánchez andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00208 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– Aholkularitza-eginkizunak 2016/17 ikasturtetik betetzen ditu, baina lanpostua geroztik sortu zen plantilla organikoan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duen abuztuaren 22ko 67/2018 Foru Dekretuaren bitartez.

– Legegintzaldi honetan, Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak egin dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko elduna: María Solana Arana

Galdera, María José Oraa andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, María José Oraa andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00209 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– Aholkularitza-eginkizunak 2017/18 ikasturtetik betetzen ditu, baina lanpostua geroztik sortu zen plantilla organikoan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duen abuztuaren 22ko 67/2018 Foru Dekretuaren bitartez.

– Legegintzaldi honetan, Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak egin dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko elduna: María Solana Arana

Galdera, Patxiku Ganboa Zabalo jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Patxiku Ganboa Zabalo jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak 9-18/PES-00210 ida-

tzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– 2015-09-01etik.

– Legegintzaldi honetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz egin dira Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

Galdera, Joseba Razkin Telleria jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Joseba Razkin Telleria jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00211 ida-

tzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– 2016-09-01etik.

– Legegintzaldi honetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz egin dira Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuak ele-duna: María Solana Arana

Galdera, Edurne Etxeberria Telletxea andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Edurne Etxeberria Telletxea andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00212 ida-

tzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– 2018-09-08tik.

– Legegintzaldi honetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz egin dira Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuak ele-duna: María Solana Arana

Galdera, Marian Lecumberri Navascués andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Marian Lecumberri Navascués andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00213 ida-

tzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– 2017-09-01etik.

– Legegintzaldi honetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz egin dira Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

Galdera, Ana López-Araus Baines andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ana López-Araus Baines andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00214 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako

Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– Lanpostu horretan dago 2015-09-01etik aurrera.

– Legegintzaldi honetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz egin dira Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroetako aholkularien izendapenaren datari eta lanean eman duten denborari buruz Nafarroako Parlamentura igorritako informazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Irakasleari Laguntzeko Zentroetako aholkularien izendapenaren datari eta lanean eman duten denborari buruz Nafarroako Parlamentura igorritako informazioari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00215 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Eskatutako informazioa ezarritako bideetatik igorri zen Parlamentura; hori dela eta, eskaria erakunde horretan bertan egin daiteke, Nafarroako Gobernura igorri behar izan gabe.

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuak eleuduna: María Solana Arana

Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroetako aholkulari-lanpostuak direla-eta Nafarroako Parlamentura igorritako informazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Irakasleari Laguntzeko Zentroetako aholkulari-lanpostuak direla-eta Nafarroako Parlamentura igorritako informazioari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00216 informazio-eskaria aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Eskatutako informazioa ezarritako bideetatik igorri zen Parlamentura; hori dela eta, eskaria erakunde horretan bertan egin daiteke, Nafarroako Gobernura igorri behar izan gabe.

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuak eleuduna: María Solana Arana

Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroak direla-eta legegintzaldi honetan Nafarroako Parlamentura igorritako informazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Irakasleari Laguntzeko Zentroak direla-eta legegintzaldi honetan Nafarroako Parlamentura igorritako informazioari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00217 ida-

tzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– 2017-09-01etik.

– Legegintzaldi honetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz egin dira Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria eta Gobernuko Eleduna: María Solana Arana

Galdera, Pilar Armendáriz Carro andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Pilar Armendáriz Carro andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00218 ida-

tzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– 2018-09-01etik

– Legegintzaldi honetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz egin dira Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko eleduna: María Solana Arana

Galdera, Eva Agos Esparza andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eva Agos Esparza andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00219 ida-

tzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– 2015-09-01etik.

– Legegintzaldi honetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz egin dira Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

Galdera, Ion Rey Bacaicoa jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ion Rey Bacaicoa jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Galdera 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00220 ida-

tzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– 2015-09-01etik.

– Legegintzaldi honetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz egin dira Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) aholkularien izendapenak.

– Giza Baliabideetako Zerbitzuaren Zuzendaritza

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

